

ZER DA?

EtxeTIC, etxean ematen diren zainketei laguntzeko **doako** zerbitzua da. **Mendekotasuna duten** eta familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa jasotzen duten pertsonari eta **haien zaintzaileei** zuzenduta dago, baina beharrezkoa da haien bizilekua etxeTIC zentro baten eragin-eremuaren barruan egotea.

Aurrez aurreko laguntza eskaintzen du (zentroan bertan), baita **telematikoa** ere (etxetik, gailu teknologikoen bidez).

ZER LAGUNTZA ESKAITZEN DITU?

- Etxean izan daitezkeen arriskuak prebenitzeko eta detektatzeko laguntzarako gailu teknologikoak.
- Etxeko zainketen ekosistemari laguntzeko planak, non ekintza pertsonalizatuak jasoko baitira mendekotasuna duen pertsonarentzat zein zaintzailearentzat.
- Zaintzaileentzako prestakuntza-ekintza espezifikoak, beste pertsona batzuk eta norberaren burua nola zaindu behar diren ikasteko.
- Historia pertsonala eta balioena egitea, erabakiak hartzeko gaitasuna murrizten denean zer arreta-mota nahi den jakiteko.
- Zaintzaileen atsedenerako zerbitzuetarako aholku eta bideratzea (eguneko zentroak edo aldi baterako egonaldiak egoitzetan).
- Informazioa eta prestakuntza ematea informazioaren eta komunikazioaren teknologiei buruz (tabletak eta beste gailu teknologiko batzuk).
- Ospitalean sartu beharra edo egoitzan nahi gabe sartu beharra prebenitzea.
- Zaintza-lanak gizonen eta emakumeen artean berdintasun handiagoz banatzen lagunduko duten jarduketak identifikatzea.
- Mendekotasuna duten pertsonari eta haien zaintzaileei ematen zaizkien laguntzen koordinazioa eta jarraipena egitea.

ZER BALDITZA BETE BEHAR DIRA?

- Familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoaren jasotzaile izatea.
- EtxeTIC zerbitzu bat egotea jasotzailearen bizilekuari dagokion eragin-eremuan.

NOLA JASO DAITEKE ZERBITZUA?

1. **Eskaera:** Mendetasunaren ebaluazioa egiteko bisitan, arreta eskaintzeko banakako programa adostean edo, bestela, edozein momentutan, eskaera bat aurkeztuta.
2. **Zerbitzua onestea:** Foru-agindua postaz jakinaraziko da.
3. **Etxeko zainketen ekosistema ebaluatzea:** Zentrotik harremanetan jarriko dira, interesduneeen egoera eta premiak beraiekin batera aztertuko.
4. **Laguntzeko plana egitea,** interesdunaren adostasunarekin.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 173/2021 Foru Dekretua, abenduaren 21ekoa, zeinaren bidez etxean bizitzen jarraitzeko EtxeTIC laguntza-zerbitzua arautzen baita.

Data: 2022ko maiatza.

